



Larunbatean Tolosak urteko azken azoka berezia hartuko du

Postuak Trianguloa plaza, San Frantzisko pasealekua eta Plaza Zaharrean izango dira; Eskualdeko merkatarien elkarteek Eguberriei begirako hainbat kanpaina prestatu dituzte [4-5](#)



Osteguna, 2013ko abenduaren 19a. 1. urtea. 45. zenbakia. www.ataria.info



DABILEN ELEA SARIA JASOKO DU XABIER OLARRAK

Itzultzailearen ibilbidea aitortzeko, gaur Euskal Libururaren Gaia ekitaldian emango diote saria [7](#)

HARRI HANDIEN TXAPELKETA IZANGO DA IGANDEAN, ASTEASUKO PILOTALEKUAN

18:00etan hasiko da saioa eta bost harri-jasotzaileek parte hartuko dute; tartean Iban Ugartemendia hernaldetarra izango da [6](#)

Uzturre mendiko basoa berreskuratzen ari dira

Tolosako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin Uzturre mendiko zuhaitz eta basoak berreskuratzeko proiektua ari da garatzen; urriaz geroztik udalaren jabetza den 24,4 hektareako lursailean lanean ari dira. le-

hen fasean pinuak atera eta bertako berezko zuhaitzak landatuko dituzte, bigarrenen, baliozko ondarea berreskuratuko dute, eta hirugarrenean, erabilera publikorako egokitu asmo du udalak. [2](#)



Arraindegia	943	Okindegia	943	Frutadenda	943	Harategia	943
506	506	506	506	506	506	506	506
361	362	363	364	363	364	363	364



NARANJA
sarea - 2 kg
0,99 €



Kanarietako
PLATANOA
0,99 €/Kg



BAKAILU KOKOTXA
bandeja (500gr) ✱
6,90 €



TXANGURRU
betea (500gr) ✱
3,90 €



Zaharraren
TXULETA
9,90 €/Kg



AZPIZUNA
(Solomillo)
19,50 €/Kg



ARKUMEA -
ANTXUMEA
9,90 €/Kg

Uzturreko basoak berreskuratzen

Tolosako Udala Uzturreko zuhaitz eta basoak berreskuratzeko proiektua ari da garatzen, Foru Aldundiaren laguntzarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako Udala «herrian azken hamarkadetan biodibertsitatearen alde egindako egitasmo garrantzitsuena» ari da burutzen Uzturre mendian. Hain zuzen ere, udalaren jabetza den 24,4 hektareako lursaillean zuhaitz eta basoak berreskuratzeko proiektua ari da garatzen urriaz geroztik. Horretarako, egun aurkitzen diren pinuak ateratzen ari dira, eta ondoren, bertako berezko zuhaitzak landatzeko asmoa dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Naturtzaindiaren laguntza du egitasmoak, eta hiru edo lau hilabeteren buruan lehen fasea amaitzea espero dute.

Radiatak eta larizioak dira ateratzen ari diren pinuak, eta horretarako airezko kable sistema ari dira erabiltzen, garabi baten bitartez eta kable batekin. Tolosako Bimendi enpresa ari da lanak egiten. Sei urte daramatza gisa honetako lanekin, batik bat Euskal Herrian, baina, baita Espainian, Herrialde Katalanetan edota Frantzian ere. Enpresako arduradunek azaldu dutenez, zuhaitzak ateratzeko sistema horrekin lursaila «askoz gutxiago» hondatzen da, pinuak airean etortzen baitira. «Arrastaka eramanez gero, zuhaitz eta landare gehiago hausten dira; gainera, pistarik ireki gabe egin ahal da lan horrela, pistak irekitzeak ekar ditzakeen ondorioak ekidinez, ubideak ezeztatzea, esaterako». Lur sail honen gisakoetan, hau da, alda-

patsuetan sistema hau erabili ohi dela gaur egun azaldu dute. Uzturreko eremuan 5.000-6.000 pinu aterako dituzte. Horiek neurriaren arabera ari dira sailkatzen, eta ondoren, argindar zutoinetarako, paper fabriketarako edota paletetarako erabiliko dituzte.

Hiru fasetan banatua

Uzturre eta Belabieta artean eratzen den mendikatea Gipuzkoako erdiguneko korridore ekologikoaren zati da, eta Uzturreko gune horretan berezko basoa berreskuratzeak bio-

“ Pinudiaren ordez, baso autoktonoa ikusi ahal da »

HASIER DE LOS RIOS • ZINEGOTZIA

dibertsitatean eragin positiboa izango duela azaldu du Hasier De los Rios Tolosako Udaleko ingurumen zinegotziak. «Proiektu honi esker, epe ertainera, Tolosatik Uzturreko ikuspegia aldatuko da, eta pinudiaren ordez baso autoktonoa ikusi ahal izango da», adierazi du.

Bada, eremu horretako pinuak ateratzen ari dira une honetan, eta hori proiektuaren lehen fasea da, basoa berreskuratzeko egitasmoak hiru atal nagusi baititu: Pinuak aterara, eta hauen ordez bertako landareak landatu ostean, lehen fasea



Airezko kable sistema bidez ari dira pinuak ateratzen. Irudian, atzo Bimendiko langileak lanean. i.T.

amaitutakoan, alegia, bertan aurkitzen den baliozko ondarea berreskuratu asmo dute, guztia ikusteko moduan jarritz: Miserikordia zaharreko baratzak harriz egindako terrazetan, telegrafo optikoa eta erietxe zaharreko arrastoak, besteak

beste. Azken fasean, erabilera publikorako egokitu nahi dute ingurunea, seinaleak edota informazio panelak jarritz, esaterako.

Egoera «txarrean»

Berreskuratu nahi duten lur saila gaur egun Tolosako Udalarena da, baina lehenago Miserikordia edo San Inazio Erietxearen lursaila izan zen. 1966. urtean Miserikordia etxeak Estatuko baso ondarearekin kontsorzio bat sinatu zuen, bertan landaketa egiteko. Kontsorzio horren iraupena landaketaren aprobe-

txamendu nagusia egin artekoa zen.

1966ko neguan Estatuko Baso Ondareak lursail horien landaketa egin zuen, 24,4 hektarea dituen lursaillean. Gutxi gorabehera, heren batean radiata pinua landatu zuten eta beste guztia larizio pinua. 1989. urtean baso garbiketa bat egin zuten, baina ordutik gaur egunera arte, ez dute beste lanik egin eremuan. Beraz, 56 urte pasa dira landaketa egin zenetik, eta oro har, nahiko egoera txarrean daudela pinudiak azaldu du udalak.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Urdaneta Auzoan. 120m²-ko borda (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrenoa. Oso polita. Prezio onean **240.405 euro!**

Zarautz. Azken Portu. 96m². 3 logela eta trastelekua. Oso egoera onean. 390.658 euro.

Zarautz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476 euro!**

Zarautz. Alde zaharrean. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

Zarautz. Herrikobara kalean. 2 logela eta igogailua. 200.000 euro.

Zarautz. Zelai Ondo. 3 logelako etxea eta trastelekua. Igogailuarekin. Erreforma behar du. **210.000 euro!**

Zarautz. Zentroan 2 logela eta trastelekua (14m²) kanpora ematen dutenak. 270.455 euro.

Zarautz. Zentroan. Emakumezkoen **ileapaindegia** alokatzen da.

Bergara. Lizaria kalean. **Garajeak** saltzen dira. **7.000 euro**-tik aurrera (BEZ barne).

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako:

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere eskura dauka. Informazio gehiago edo edozein zalantza argitu behar izanez gero, bi telefono zenbaki daude eskuragarri: 943 696 882 edota 606 521 992.

LAN ESKAINTZA:

Etxeko lanetarako:

Etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko, emakume euskalduna behar dugu Ibarra. Interesatuak, deitu dezatela 678 977 171 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Aurrekontuen balorazio publikoa egingo du udalak

Villabonako udalak 2013ko aurrekontuak eta 2014 urteko aurreikuspenak azalduko ditu, Subijana etxean, gaur 19:00etan

ERREDAKZIOA AMASA-VILLABONA

Amasa-Villabonako udalak 2013ko aurrekontu exekuzioaren bigarren bilera irekia egingo du gaur arratsaldean. Asteartean egin zuen lehena Amasan, eta gaur Subijana etxean egingo du bigarrena, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Aurrekontu exekuzioaz gain, datoren urterako aurreikusten diren aurrekontuen berri ere emango du Udala Gobernuak. 2014rako aurrekontu horiek badute berezitasun bat, izan ere, 25.000 euroko partida berezi bat bideratuko da herritarrek auzoa hobetzeko egiten dituzten proposa-

menentzat, eta eskaera horien arabera egingo da diru kantitate horren banaketa. Horregatik, bilera horietan parte hartzea garrantzitsua dela nabarmendu du udalak.

Batzarrera joan ezin dutenek, ordea, badute ekarpenak egiteko beste bide bat. Izan ere, udalak etxetik buzoietan banatutako inkestak beteitzeko aukera dago. Inkesta horiek udalak ahalbidetutako buzoietan utzi beharko dira. Kiroldegian, jubilatuen tabernan, udaletxeko sarreran eta Amasako Iturri-Goxo tabernan daude jarrita inkestak uzteko buzoi horiek, eta bihar izango da horiek uzteko azken eguna.



Pasa den urtean ere aurrekontu parte hartzaileak egin zituen udalak. ATARIA

Olaizolaren orde, Saralegi izango da

ALTZO. Olentzerotan Jakinminezen barruan, gaur Aimar Olaizola zen Altzora joateakoa baina agenda arazoak direla eta, ezin izango du bertaratu. Mahainguruko hutsunea, berriz, Ekaitz Saralegi beteko du. Jon Ander Albisu eta Joxan Tolosa izango dira amezketarrarekin batera.

Euskal Herriko mus txapelketa, igandean

ADUNA. Datorren igandean, hilaren 22an, Euskal Herriko mus txapelketa kanporaketa jokatu da Adunan. Arratsaldeko bostetan hasiko dira lehen partidak jokatzen Txulobi elkarteak. Han bertan izena emateko aukera izango da, edo bestela, txapelketako webgune ofizialean (www.euskalherrikomustxapelketa.org) egin daiteke.

Aizkardi Baztanera joango da igandean

AMASA-VILLABONA. Baztan ingurura irteera antolatu du Aizkardi Mendiko elkarteak iganderako. 07:00etan irtengo dira Villabonatik. Berroetatik abiatuko dira, eta Abartan mendia (1.087) igoko dute eta Saioa ondoren (1.414). Handik, Okolin (1.354) eta Gartzaga (1.289) pasako dituzte berriro ere Berroetara itzuli aurretik. Izena emateko, 649717182 telefonora deitu edo Aizkardiko bulegoetatik pasa daiteke. Gaur izango da izena emateko azken eguna.

Isabel Mujikaren erakusketa, bihar

TOLOSA. Isabel Mujika artista tolosarraren erakusketa inauguratuko dute bihar. Bere artelanak urtarilaren 25era bitarte egongo dira ikusgai Aranburu Jauregian.

Elkartasun ekimenek aste honetan ere jarraituko dute

Villabonan material bilketa ari dira egiten, eta Ibarran Misio Taldeak antolatutako azoka dago

ERREDAKZIOA

Gabonen atarian hainbat dira herrialde pobreak laguntzeko asmoarekin antolatu diren elkartasun azoka eta kanpainak. Pasa den astean, Kirikiño Aisialdi taldea izan zen jakiak biltzen Abegi eta Caritasentzat. Asteburuan, Berastegin izan da Elkartasun Azoka, eta oraingo aste honetan, Ibarratik Misio Taldeak antolatutako merkata da protagonista.

Ibarratik Misio Taldearen merkatuaren xedea Ekuador, Honduras eta Indiako misioetarako diru laguntzak

lortzea da. Igandera bitartean izango da zabalik. Asteunetan, 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik iluntzeko 20:30era egongo da zabalik eta igandean, 10:00etatik 14:00etara, San Bartolome plazan dauden parokiako lokaletan. Gainera, pintxo pote solidarioa ere izan dute. Eskupekoen bat eman nahi izanez gero, 2095 5043 97 1062974919 kontu korrontea bideratu dute.

Berastegin, berriz, pasa den asteburuan egin zuten Elkartasun Azoka, eta herritarren erantzun onari esker, 320 euro jaso dituzte. Aurreko urteetan bezala Wukroa bidaliko da diru hori Etiopia Utopia fundazioaren bidez. Antolatzaileak pozik daude herritarren parte hartzearekin, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete materiala ekarri eta erostera gerturatu diren guztiei.

'Elkartasun zapatila solidarioa'

Wukrok ere jasoko du laguntza gehiago, Amasa-Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolak, Etiopiako herrian Angel Olan aita zuriak kudeatzen duen misioko gazteen artean oinarritzko kirola sustatzeko proiektu solidarioa jarri du abian.

Bi ekimen biltzen ditu proiektu honek. Alde batetik, *Elkartasun zapatila solidarioak* egoera onean dauden kirol-zapatila eta bestelako materiala jasotzeko helburua du: baloiak, pilotak, raketak, palak, uztaiak, sokak... Parte hartu nahi izanez gero, materiala Txermingo edo Zizurkilgo Ikastolara eraman daiteke. Bihar da material hori biltzeko azken eguna. Bestalde, San Silvestre lasterketa egingo da Hernanin, eta izen-emateen dirua Wukroa bideratuko da.

Harizpe elkarteko jokoen irabazleak erabaki dira

Bihar amaituko da bazkideentzat gabonsariak jaso eta loteria erosteko epea

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatzen eta pentsiodunen elkarteak udazkeneko antolatu ohi dituen jokoetako irabazleen izenak jakin dira jada. Lau erregetarako mus txapelketako irabazleak Lopetegi eta Telleria izan dira. Zortzi erregetara, berriz, Martin eta Sainz izan dira hoberenak. Puntxoan ere azken bikote hau izan da onena. Dominoan, Veiga eta Sasiainek osatutako bikotea izan da garaile, eta Tutean, Gil eta Gordillo. Tokan berriz, Ortiz izan da hobere- na gizonetakoetan, eta Agirre, emakumezkoen artean.

Bestalde, Harizpe elkartearen gabonsariak eta loteria eskuratzeko aukera dago oraindik. Gabonsarien banaketa bihar amaituko da, eta hartu



Jokoetako irabazleak, sariekin. ATARIA

ez duenak elkarteko areto nagusitik pasata egin dezake 10:30etatik 12:30era bitarte. Ezinbestekoa da eguneratutako bazkide txartela erakustea. Behin jasotzeko epea bukatuta, ez da gabonsaririk emango eta soberan daudenak itzuli egingo dira.

Loteria erosteko, berriz, bi aukera daude. Elkarteko bulegoan eros daiteke, astelehen, asteazken eta asteunetan, ordutegi berean; baita tabernan ere. Oraindik ez dira guztiak saldu. Salneurria, berriz, bost eurokoa da.



Egin zaitez atarikide!

943-65 56 95
atarikide@ataria.info

Bertatik bertara, askoz hobe

Eskualdeko merkatarien elkarteek Eguberriei begirako hainbat kanpaina eta kale animazio antolatu dituzte, bertako kontsumoa sustatuz

I. GARCIA LANDA / I. URKIZU

Herritar gehienentzat poltsikoaren beherakada eragiten dute Gabonetan, ospakizun eta opariak tarteko. Merkatarien eta ostalarien begietara, ordea, oso bestelakoa da urte amaierako festen ondorioa. Hamabi hilabeteetako irabazien zati handi bat Gabonetan eskuratzen dute, eta herritarrek herrian bertan kontsumitzeko hainbat kanpaina findu dituzte Tolosako, Amasa-Villabonako eta Ibarako merkatariak. Bertatik bertara festa ere egin daitezkeenez, merkatarien egitasmoekin batera kalea girotzen hasiko da asteburuan bertan; horren erakusle da, Tolosako Gabonetako azoka berezia.

Merkatarien eta ostalarien ekin-tzailetasunaz harago, herriko eragi-

leekin elkarlanean, eta udalaren laguntzaz prestatu dute Gabonetako egitaraua, Amasa-Villabonan. Billa-bonatarrak oporraldia bertan igaro, eta erosketak bertan egite aldera, kale animazioa eta haurrentzako eskaintza izango dira, batetik. Era berean, 1.100 euro zozketatuko dituzte txekoen bitartez.

Ibarran ere txekoen egitasmoa aurkeztu zuten pasa den astean. Horrekin batera, ordea, eta erosketekin ingurumenaren zaintza bate-ratuz, merkatarien elkarteko logoa daramaten 1.500 poltsa berrerabilgarri egin dituzte. Bi helbururekin burutu dute egitasmoa: merkatarien elkarteko logoa herritarren artean ezagutaraztea da bata, eta plastikoaren sorrera saihestuz, ahalik eta hondakin gutxien sortzea.



Ibai Iriarte eta Juanjo Ruiz, Tolosako Gabonetako eskaintza aurkezten. I. GARCIA LANDA

Tolosan, berriz, 6.000 euro zozketatuko dituzte txekekin, eta haur parkea nahiz kale animazioa izango dira.

Urteko azken azoka berezia

Larunbatean izango da, Tolosan, 2013. urteko azken azoka berezia. Trianguloa plaza, Plaza Zaharra eta

San Frantzisko pasealekua hartuko ditu, eta larunbateroko posturik ez da faltako.

Artisau nahiz nekazarien postuekin batera, odolki lehiaketa izango da aurten ere. 11 parte-hartzailek eman dute izena, oraingoz; oraindik ere izena eman daiteke, ordea, 943 69 75 21era deituta.

Azkenik, neguko fruituen inguruko tailerra izango da larunbateko azoka bereziko berrikuntza. 10:30etik 13:30era bitarte, ezezagunak izan daitezkeen garaiko hainbat fruitu ezagutu, dastatu eta horiekin esperimentatzeko aukera izango da Zerkausion, nahi duenarentzat, doan.

Gabonetako egitarauak eskualdean

AMASA-VILLABONA

GABON PARKEA

Abenduak 23 eta 27, urtarrilak 3. 16:30etik 19:30era, Bearzana frontoian. Prezioa: 2 euro, familia ugari-entzat 1,40 euro.

Abenduak 28. 10:00etatik 13:00etara, Bearzana frontoian. Prezioa: 2 euro, familia ugari-entzat 1,40 euro.

ABENDUAK 20, OSTIRALA

10:00-13:00. Ernio-bea institutuko elikagaien eta animalien azoka Berdura plazan.

17:00-19:30. Talo tailerra Berdura plazan. Prezioa: 0,50 euro.

ABENDUAK 21, LARUNBATA

17:00. Haurrentzako zinema saioa, Gurea antzokian, doan.

ABENDUAK 22, IGANDEA

17:00. Haurrentzako zinema saioa, Gurea antzokian, doan.

ABENDUAK 24, ASTEARTEA

Egun osoan. Jaiotza biziduna Zentroko plazan.

17:30. Olentzero eta Mari Domingiren jaiotsiera Otsabitik. 18:15ean izango dira herrian.

ABENDUAK 28, LARUNBATA

17:00. Haurrentzako zinema saioa, Gurea antzokian, doan.

ABENDUAK 29, IGANDEA

17:00. Haurrentzako zinema saioa, Gurea antzokian, doan.

ABENDUAK 31, ASTEARTEA

16:00. Urte Zaharreko Kroseko haurren proba Zizurkilgo Urkamendi elkartetik abiatuko da.

16:00. Urte Zaharreko Kroseko helduen proba Zizurkilgo Urkamendi elkartetik abiatuko da.

URTARRILAK 1, ASTEAZKENA

08:30. Loatzora mendi irteera. Ola-ederra kiroldegitik aterako dira.

URTARRILAK 4, LARUNBATA

11:00-13:00. Imanol Ituiñoren magia saioak komertzioetan.

17:00-20:00. Herriko dendak arratsalde ere irekita izango dira.

17:00-19:00. Haurrentzako tailer-rrak Berdura plazan.

19:00-20:00. Haurrentzako dantzaldia Berdura plazan.

URTARRILAK 5, IGANDEA

19:00. Erregeen jaiotsiera Amasatik.

IBARRA

Abenduak 20, ostirala

18:00. Kidam magoaren Txin-txin magikoa ikuskizuna, kultur etxean.

TOLOSA

GABONETAKO AZOKA BEREZIA

Abenduak 21, larunbata.

Larunbateroko merkatua, goiz osoan. Zerkausion, Euskal Herria plazan eta Berdura plazan. Fronton jatetxeak prestatuta, konpota bana-

tuko diete asteroko merkatuan egoten diren saltzaileei, urte guztian egiten duten lan hori nolabait egun berezi honetan eskertu asmoz.

San Frantzisko pasealekua.

Goiz osoan. Askotariko jakiak salgai: ahatekiak, kontserbak, gozoak, eztia, gazta ... Artisauek landutako lanak ere izango dira artxibo aurrean: pilotak, bitxiak, egurrezko jostailuak, oinetakoak, makramea...

Trianguloa plaza.

Goiz osoan. Eztia, ahatekiak, gazta, txokolatea, txakoliña, ardoa eta abar erosteko aukera. Tolosako dendariak ere kalera aterako dituzte beraien produktuak: jostailuak, oparitarako gaiak, kosmetika naturala, zeramika...

08:00. Odolki lehiaketako parte-hartzaileen odolkiak sutan jarriko dituzte.

13:00. Odolki lehiaketako irabazlearen izena jakinaraziko dute.

Plaza Zaharra.

Goiz osoan. Animalien erakusketa. Euskal txerria, Enkarterrietako as-toa, azpi gorri ahuntza eta euskal oi-loa. Horrez gain, Bidaniatik etorritako euskal txerriaren produktuak salgai izango dira.

HAUR PARKEA, Zerkausion

Abenduaren 26tik 29ra. 2-8 urte arteko haurrei begirakoa. Surf ohol-la, Santa Fe tren-a, bi puzgarri, 20 aparailu mugikor, bi airezko mahai, futbolaria eta Xbox bat izango dira.

Abenduak 23, astelehena

18:30. Brotxe apaingarrien tailerra.

Abenduak 26 eta 27

18:30. Zortzi urtetik gorako haurrei zuzendutako stop-motion ikastaroa.

Abenduak 26, ostirala

17:00. Ikuskizuna: Patata Tropikala, Amona Joxeparen istorioak.

Abenduak 27, larunbata

17:00. Kiki pailazoa, Katapuntxis-pun festa.



Gabon zoriontsuak pasa!



KALITATE HOBERENA, PREZIO ONEAN

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:30 / 13:00 - 16:30 / 20:00
Larunbata 10:00 / 13:00 - 17:00 / 19:00
LARUNBAT ARRATSALDEAN IREKITA



Gazte logelak, bikote logelak, aretoak, jangelak, sukaldeko mahaia, sofak....
Flex koltxoak...



Euskal Herria 37, behea • IBARRA • Tel: 943 53 63 24

Juanjo Ruiz **Tolosa & Co** elkarteko lehendakaria

«Tolosan denetik dago, hiri komertziala da, finean»

Mugimendu gehiago nabari dute aurten, Tolosako merkatariek; baikor daude horregatik.

Gabonetako kanpaina bereziki lantzen duzue.

Bai. Kontuan izan behar da urte osoan gehien saltzen dugun garaia izaten dela eta dendariontzat, beraz, oso-oso garrantzitsua izaten da epe hori. Gure aldetik kanpainetan erabiltzen ditugun aurrekontuei dagokienez ere, gabonetakoak izaten dira indartsuenak.

2013ko Gabon hauei begira zer prestatu duzue, zehazki?

Tolosako Udalarekin egindako elkarlanari esker, 6.000 euro zozketatuko ditugu hainbat txarteletan.

Herritarrek nola parte hartu ahal izango dute kanpaina honetan?

Tolosako komertzio eta ostalaritza-guneetan kontsumitzen dutenen artean egingo ditugu zozketak. Horrez gain, gabonetako parkea antolatu dute Zerkausan, eta kalea girotzeko

zuzeneko musika ere ia egunero izango da: Tolosako gazteak eta Anónimos laukotea ariko dira aurten.

Garai berrietara ere egokitu zarete.

Bai, aurtengo berrikuntza grabatu dugun iragarkia izan da. Sare sozialetan eta Leidorreko emanaldien aurretik ikusgai dago jada.

Herritarrek herrian kontsumitzeko dela egiten duzue, ezta?

Bai. Kontsumo jasangarri bat sustatu nahi dugu, urte osoko azokek eta Tolosako komertzioek Tolosa bizirik mantentzea baitakarte. Beraz, Zerkausan eta kalean antolatu ditugun

egitasmoek jendea hona erakartzea espero dugu. Tolosan denetik dago, hiri komertziala da, finean.

Tolosar askoren ogibidea da komertzioa?

Noski. Denok bat egingo bagenu herriko enpresa handiena ginatke: hirugarren sektorean 1.500 lagun aritzen gara lanean.

Kanpaina ona espero al duzue?

Datu asko ematen ari dira eguno-

tan, eta guztiek diote igo egingo dela kontsumoa, % 5 inguru-edo. Egia esan, kalean mugimendu pixka bat gehiago nabari da. Baikorrak izan eta Gabonak pasatu arte itxaron beharko dugu.

Elkarteko zuzendaritza ere laster aldatuko da, ezta?

Urtarrila amaieran beste talde bat aurkeztuko da, gure epea amaitu baita. Haiek jarraituko dute lanean.

Abenduak 29, igandea

17:00. Kidam Magoa, *Txin-txan magikoa*.

GAZTE TOPAGUNEA

Abenduak 26, osteguna

17:00. Futbolen txapelketa mistoa.

Abenduak 28, larunbata

17:00. Gaztaina jatea topagunean.

Abenduak 29, igandea

17:00. Izotz jauregiara irteera.

IKUSKIZUNAK

Abenduak 21, larunbata

18:00. Musika janariaren truke, Tolosako Musika Eskolako kontzertua, Topic zentroko aretoan. Elkartasun jarduera denez, sarrera janariarekin ordaindu beharko da, janari hau Caritas-i emateko.

Abenduak 28, larunbata

16:30ean eta 18:30ean. Poxpolo ta Konpainiaren ikuskizuna, Leidor aretoan. Sarrerak salgai www.kutxasarrerak.net helbidean.

Abenduak 29, igandea

18:30. Topic zentroan, *Gulliver en el país de Liliput*, Centre de Titelles de Lleida-ren eskutik. 3-8 urte bitarteko haurrentzat.


Urtarrilak 3, ostirala

17:00. *Hansel eta Gretel* Txokolatezko etxean ikuskizuna Leidorren. Sarrerak salgai www.kutxasarrerak.net eta leihatilan.

Urtarrilak 4, larunbata

18.30. Txotxongiloak janariaren truke egitasmoa saioa. Txotxongilo txaldearen eskutik, *Elurrezko panpi* emanaldia Topic zentroan. Elkartasun jarduera denez, sarrera janariarekin ordaindu beharko da, janari hau Caritas-i emateko.

Kutxabank gordailuak interes berezian Baskepensionesera ekarpena egiteagatik



Etorkizunari begira dauden planak.

BASKEPENSIONES.
e.p.s.v.

Kutxabank SA Bazkide babeste eratzailea / Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.
Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

Harri Handien txapelketa igandean Asteasun

18:00etan hasiko dira jaso beharreko lau harriekin lanean bost harri-jasotzaileak Asteasuko pilotalekuan

IGOR AGIRRE ASTEASU

Euskadiko Herri Kirol Federazioak Asteasuko Udalaren laguntzarekin urtero antolatu ohi duen Euskal Herriko Harri Handien txapelketaren txanda izango da igande honetan Asteasun.

Duela bi urte txapelketa ospatu ez bazen ere, lehengo urtean bezalaxe harri handiek beraien lekua edukiko dute aurten Asteasun. Hiru partaidek izena eman ezean, txapelketa ez da ospatzen eta horixe gertatu zen duela bi urte.

Harri-jasotzaileek egin beharreko lanak lau harri ezberdin jasotzean datza; 200 kiloko errektangularra, 175 kiloko zilindrikoa, 150 kiloko kubikoa eta 125 kiloko bola. Harri bakoitzarekin 3 minutuko tartea edukiko dute parte hartzaileek eta arratsaldeko 18:00etan ekingo diote saioari.

Aurtengo edizioan, bost harri-jasotzaile izango dira txapelketan. Azken bost urteetako txapelduna den



Aimar Irigoien 2012ko Harri Handien Txapelketako txapelarekin. ATARIA

Aimar Irigoien errezildarrak, Joseba Ostolaza zestoarrak eta Jokin Eizmendi zaraustarrak berriro errepikatuko dute txapela irabazteko lehian.

Aurten txapelketan estreinatuko den Iban Ugartemendia hernialdetarra ere bertan izango da, pisu handiko harriekin lehen esperientzia edukitzeko prest. Harri-jasotzaile guztietan gazteena, aldiz, Urtzi Telleria lasartearra izango da.

Faborito nagusia Aimar Irigoien izango da aurtengoan ere, lehengo urteko txapelaren irabazlea. Joseba Ostolaza, aurreko urtean lesioa ba-

tetik irten berri joan zen txapelketa-
ra. Aurtengoan, ordea, lan txukun bat egiteko asmoarekin gerturatuko da. Jokin Eizmendi ere, beste urtean egindako lana hobetzeko asmoarekin azalduko da Asteasuko frontoi-
ra.

Urtzi Telleria gazteak, 80 kilo inguruko pisuarekin, aurretik ere parte hartu izan du Euskal Herriko Harri Handien txapelketan. Iban Ugartemendiak bere lehen parte hartzea egingo du honelako txapelketa batean eta ilusioz beterik agertu da hernialdetarra.

• ataria@ataria.info •

Iban Ugartemendia • Harrijasotzailea

«Probatzeko asmoarekin noa igande honetan Asteasuko saiora»

Duela lau urte hasi zen Iban Ugartemendia (Hernialde, 1974) harriak jasotzen. Herriko festetako herri kirol erakustaldian parte hartzera animatuz hasi zuen bere harri-jasotzaile ibilbidea eta igande honetan, Euskal Herriko Harri Handi txapelketan hartuko du parte Asteasun, lehen aldiz.

Nolatan hasi zinen harriak jasotzen?

Herriko festetarako zerbait antolatzeko hasi ginen 2009an. Batzuk aitzakora hautatu zuten bezalaxe nik harriak aukeratu nituen, betidanik gustuko izan baititut. Eta honelaxe, kasualitatez hasi nintzen. Kontua hor utzi beharrean, Igeldoko Harria probatzeko animatu nintzen ondoren.

Igandeko saioak prestaketa berezia eskatuko du ezta?

Betiko prestaketa berbera egin dut nik, agian zertxobait gogorragoa.

Astean bi entrenamendu egin ohi ditut, astean zehar bat eta asteburuan bestea, zertxobait gogorragoa. Hala ere, egia da Harri Handien txapelketa orain arte parte hartu dudana txapelketetan gogorrerarekin dela.

Lehen esperientzia duzu horrelako txapelketa batean orduan.

Bai eta probatzera noa Asteasura. Nire gorputzak nolako erreakzioa duen ikusi nahi dut, lau harri ezberdin dira jaso beharrekoak eta oraindik ikusteko dago nolako lana egin dezakedan. Sentsazio onak ditut eta ea zer moduzko saioa egiten duan.

Orain arte zein harriekin ibili zara lanean?

Harri baldarrekin eta irregularrekin ibili izan naiz. Harri Handien txapelketako harriekin ez dut esperientziarik eta lehen aldia izango da horrelako harriekin saio bat osatuko

dudana. Aurten probatu nahi nituen harri hauek eta gogotsu nago iganderako.

Zaila da Aimar Irigoieni aurkaria bilatzea.

Bai, oso zaila gainera. Urte asko darrazki Aimarrek harrien munduan eta aspalditik beste prestaketa batzuk egiten ditu saio hauetarako. Guk, afizio moduan dugu harriak jasotzea eta bera profesionala da mundu honetan. Askotan erakutsi du punta-puntan dagoela eta aurten ere, zerbait arraroa pasa ezean, berak irabaziko duela uste dut.

Etorkizunerako zer asmo duzu?

Lehenik eta behin igandekoa nola joaten den ikusi nahi dut eta ondo bidean, datorren urterako Euskal Herriko Harri Handien txapelketa hobeto prestatzea da nire asmoa. Orain arteko harriak ere ez ditut alboratu nahi, beraiekin moldatzen naiz ondoen eta.

Bioaniztasunetik

ASTOA



JON ANDER GALARRAGA
BIOLOGOA

A tzo ginen hogeita hamar gradutara, uda gorrian, eta kon-
turatzerako Eguberriak gaine-
an ditugu, aurki urtea amaituko da eta berriro uda etorriko da. Eta kon-
turatzen garenerako, 2015ean sar-
tuko gara. Nahiz eta urte asko bizi
garela irudit, bizitza motza da...
aprobetxatu!

Eguberri hauetan ere biologook
topera gabiltza, aste baten barruan
hiru animalia mota oso desberdin
inguratzen baitira gurera. Eta mere-
zi du beraiez aipamen txiki bat egi-
teak, beraiek gabe ez baitzen egu-
berririk izango! Imagina ezazue
gure Olentzero handia astorik gabe,
Errege Magoak gamelurik gabe eta
gorriz jantzita ibiltzen den agure bi-
zarzuri hori, bere gurdia tirako ez lu-
keten elur-orein hegalaririk gabe.

Ez dakit inoiz jabetu zareten, bai-
na opari-emaile bakoitzak bere jato-
rritik dakar bere maskota laguntzaile-
lea. Aita Noel bizarzuria Laponia al-
dekoa omen da, leku hotzekoa
bera, eta leku hotz haietara egokitu
diren elur-oreinekin (*Rangifer ta-
randus*) doa munduan barrena opa-
riak banatzen. Errege Magoak men-
debalde urrunetik datoz, eta han
basamortua eta beroa ugari izanik,
basamortura bikain egokitutako
animaliak dakartzate: gameluak
(*Camelus batrianus*). Eta hain geu-
rea dugun Olentzero handiak, astoa
dakar (*Equus africanus asinus*).
Hala ere, asto mota ugari dago
munduan, eta nik uste Olentzerok
euskal astoetako bat erabiliko due-
la, Pirinioetako astoa edo agian En-
kanterrietako astoa. Biak labeldu-
nak noski!

Gure astoak, oso gurea iruditzen
zaigun arren, Afrikan du jatorria,
guk bezala. Agian lehen *Homo sa-
piensa* Afrikatik asto baten gainean
etorri zen... Historiako lehen Olen-
tzeroa ote?

Astoa, zaldia, zebra, tapirra eta
errinozerontea, denak dira ahaide-
ak, guztiak datoz zakur baten ta-
maina zeukan zaldi txiki belarjale
batetik. Milioika urtek igaro behar
izan zuten zakurraren tamainako

zaldi txiki hartatik, lehen asto basa-
tia sortzeko. Eta beste milioika urte
lehen gizakia asto basati harenga-
na hurbildu, gainean zaku bat ipini
eta zamaianak egiteko erabili zuen
arte. Milioika asto-hozkada jasan
behar izan zituen gizaki ero hark,
milioika farre egin izango zien bizila-
gunek, baina behin astoa berega-
natzea lortuta, milioika bizkarreko
min ekidin zituen eta milioika inbi-
dia sortu zituen bizilagunen artean.

Izan ere, asto bat etxean eduki-
tzeak abantaila ugari ematen ditu,
bai baratza lantzeko eta bai zama-
lanak egiteko. Ez da harritzekoa,
beraz, astoa etxekotzearena mun-
du guztian burutu izana. Tokian to-
kiko gizakiek, tokian tokiko astoak
erabili zituzten noski.

Badira mito ugari astoaren ingu-
ruan, izan ere, euskaldun eta ez
euskaldunen artean, astoa beti izan
da etxe ondoan. Istorio batek dio,
garai batean mendian bideren bat
eraiki behar bazen, aurretik asto
bat bidaltzen zutela bidea nondik
joango zen adierazteko. Izan ere,
astoak beti aukeratzen omen du bi-
derik errazena. Mendi ingeniaritza
lizentziatura zuten astoek!

Nire aitona zenak zioen, astoek
bazekitela beren jabea nor zen, eta
besteren batek pisua ipintzen ba-
zion bizkarrean, segituan hozkada
egiten zutela. Hau ekiditeko, astoa-
ren parean jarri eta bi muturreko
eman behar omen zitzaizkion, asto-
ak jabe berria nor zen ikas zezan.
Bazen Altzo inguruan Nafarroatik
zetorren baserritar bat, bide erdia
gautu eta otsoen uluak entzun zi-
tuena. Baserritarrek, bere burua
estu ikusita, astoa zuhaitz bati lotu
eta korrika ihes egin zuen, otsoek,
lotuta dagoen astoari, korrika zijoa
gizonari baino jaramon gehiago
egingo ziotelakoan. Gizona egun-
sentian etxera iritsi, eta eguerdira-
ko astoa arrantzaka omen zeukan
etxe parean. Astoarengana gozoki
hurbildu zenean, «etorri zara polit
hori» esanez, astoak bi hanken gai-
nean jarri eta ostiko batez akabatu
omen zuen baserritarra. Astoak ba-
zekien bai, gizon haren intentzioak
zein izan ziren!

Gaur egun astoa kinka larrian
dugu; munduko espezieen zerren-
dan galzorian dagoen espeziea da.
Gurean genituen lauzpabost asto
motetatik, bi geratzen dira: Enkan-
terrietakoa eta Pirinioetakoa. Be-
raz, Olentzero zuen etxera doane-
an, utzi sagardo botila bat berari eta
arto pixka bat astoari, azken honek
lan gehixeago izango du eta!

Irudia Tolosa



Jatorri aniztasuna aldarrikatu dute alkateek

Tolosaldeko alkateak biztanleen jatorri aniztasunaren alde azaldu ziren atzo, Tolosako udaletxean eginiko agerraldian. Migratzaileen Nazioarteko Eguna izaki, gizarteko aniztasunaren inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko sortutako Euskal Herria 11 Kolore ekimenak prestatutako agiria-ekin egin zuten bat.R. C.

Gabonetako ekitaldi sorta, Anoetako gazteen eskutik

Gazte Asanbladak bihar hasi eta urtarrilaren 3an amaituko den egitaraua antolatu du, adin guztiei zuzenduta

eta urteko azken ostirala izaki, euskal presoan eta iheslarien eskubideen alde Anoeta eta Irura elkartzen dituen zubian 19:30ean elkarretaratzea egingo dute eta herritar guztiak animatzen dituzte bertan parte hartzera.

• ataria@ataria.info •

Egitaraua

ERREDAKZIOA ANOETA

Anoetako Gazte Asanbladak antolatuta LOMCE legearen inguruko hitzaldia izango da bihar, 18:30etik aurrera, Gaztetxean, Tolosaldeko Ikasle Abertzaleen kide batek eskainita. Ekitaldi honekin hasiko da, hain justu, Gazte Asanbladak Gabonetarako antolatutako egitaraua. Ekitaldi guztiak Gaztetxean izango dira.

Herritar guztiei gonbita

Asanbladako kideek esan dutenez, hurrei, gazteei zein helduei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte, eta horregatik, herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

Era berean, hilaren 27an, hileko

ABENDUAK 20, BIHAR

18:30. LOMCE legearen inguruko hitzaldia Tolosaldeko Ikasle Abertzaleen kide baten eskutik.

ABENDUAK 23

17:30. Umeentzako eskulan tailerra.

ABENDUAK 24

08:00. Baserriz baserri ibiliko dira kantuan, eta ondoren bazkaria egingo dute.

ABENDUAK 26


22:00. Txapelketa Gaur.

ABENDUAK 27

22:00. Txikiren *Mil a zien, baietz parrez lehertu* bakarriketa.

URTARRILAK 3

18:00. *La educación prohibida* dokumentala.



Xabier Olarra tolosarrak Dabilen Elea saria jasoko du, gaur

Itzultzailearen ibilbidea aitortzen duen saria Euskal Liburuaren Gaur ekitaldian jasoko du

ERREDAKZIOA TOLOSA


Xabier Olarra itzultzaile tolosarrari azken 30 urteetako ibilbidea aitortuko diote gaur, 19:00etan, Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan egingo duten ekitaldian. Dabilen Elea saria emango diote Euskal Liburuaren Gaur ekitaldian.

Olarra Igela argitaletxearen sortzaile eta arduraduna ere bada, eta gaurko sariarekin 1985. urteaz geroztik 30etik gora liburu euskaratu dituztela gogoratuko dute, gehienak Igelak argitaratuta.

Olarrarekin batera William Shakespeare idazlea izango da ekitaldiko protagonista; hainbat kantari, musikari eta idazlek haren soneto batzuk emango baitituzte, errezitatuta zein kantuz, Juan Garzia Gar-

mendiak egindako itzulpenak baliatuta. Shakespeareren *Soneto hautatuak* Juan Garziak itzul-antolatuak liburu argitaratu zuen Alberdaniak 1995. urtean, eta EHUko Mikel Laboa Katedra itzulpen horien edizio osatu eta hobetua prestatzen ari da orain, Joxean Goikoetxearen musikaz hornitua eta disko-liburu formatuan, eta Koldobika Jauregi alkizarren ilustrazioekin.

• ataria@ataria.info •



Xabier Olarra tolosarra. ATARIA

hilberriak
urteurrenak
eskertzak


ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua (zalantzak argitzeko...): **902 82 02 01**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil
Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



**Ataria-k
Bai
Euskarari**



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zorion Agurrak



Zorionak Ana Belen!

Tantaz tanta, denok etxera! ZORIONAK!



Agenda

DEIALDIAK

GAUR

ALTZO. Olentzerotan Jakiminezen barruan, Pelota airean mahai inguruan izango da: Jon Ander Albi-su, Ekaitz Saralegi eta Joxean Tolosarekin. Pilotaren egoeraz eta etorkizunaz, beren ibilbideaz eta beste hainbat gauzez hitz egingo dute. Bestetik, Iñaki Epelderen lanaren lagin zabal bat dago ikusgai udaletxeko ganbaran, 18:00etatik 20:00etara.

TOLOSA. Dina Bilbaori buruzko liburur aurkezpena eta mahai ingurua, kultur etxean, 19:00etan.

TOLOSA. A25: Topaguneko gazteei hitzaldia emango die Amaia Urkola, Gizarte Hezkuntzako ikasleak, kultur etxean, 18:00etan.

IKAZTEGIETA. Herrigintza elkarte-an Tolosaldeko bertsolari gazteekin bertso afaria izango da, hileren 20an, ostiralean, 21:00etatik

aurrera. Txartelak Ostatu eta Toki Alai tabernetan daude salgai, 15 euroren truke.

IRURA. Iraitz Ezkergain mendizaleak, *Mendian galtzen neroni bilatzeko* hitzaldia eskainiko du, Irurako Trinkete Tabernan, 19:30etatik aurrera. Eta Zaharren biltoki berrian, Loatzko Musika eskolako txistularien kontzertua izango da ordu berean.

ZIZURKIL. Liburuaren Astearen barruan, haur irakurketa kluba izango da Atxulondo kultur etxean.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Farmaziak

Gaur

Tolosa:
Egunekoa eta gauekoa:
Bronte Posada, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.



Belate pasealekua 1, behea • TOLOSA • 943 506 638

**Urtebetetzeak
Ezkontzak
Jaioberriak**



AGURRAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info

GAURKO ESKAINTZA

**Olentzero
eta oparien ordua
filmaz gozatu**

BARTON FILMS

Uribitarte, 8 - 4. esk.,
BILBO 48001 - BIZKAIA
Tel.: 94-424 05 59
bartonfilms@bartonfilms.com
www.bartonfilms.com

Bidalketa
gastuak
barne

Prezioa

4,5€



www.mauka.eu

berria
taldea